

## Sabino Arana Goiriren ordu ilunak

*Deia*, 1983-11-30.

Lehenengoa haurtzarokoa izan zen.

Aintzinako neke handi batek estali zuen Euskalerra osoa; dena geratu zen hila; lehendabiziko aldiz jabetu zen arerioa bere administrazioaz, eta, noski, politikoak ziren instituzioez ere, Udaletatik hasi eta Batzar Nagusiak arteraino; hezkuntza maila guztiak Espainiaren mende eta zentsurapean geratu ziren. Herria gizon gabe geratzen hasi zen: gerran hildakoen galera gutxi ez zela, atzerriratzen hasi ziren gazteak, batzu mugaz haruntz, besteak urrutiko Ameriketara.

Euskalerra hustutzen zihoan.

Herri-konziencia bera ere lanbrotu zela zirudien.

Denak badakite ihadanik, etxean nahiz kanpoan, Euskalerra betirako joana dela, eta, noski, Sabinekin ere bai.

Batez ere honek: 1876garrengo legea Madrilen pasa zutenean, hamaika urte zituen; Orduñako ikastetxera sartu zutenerako badu hiru urteko erbestea, eta erbeste honetan entzun-ikus ahal izan dituen neke-nigarrak ukitua dago.

Zerk bultza du gaztetxoa, bestela, hitz larri hauek esatera:

*"Ni jaio nintzen*

*aberriaren azkena ikusteko"*

Bigarren ordu iluna *Larrazabal*-ekoa izan zen.

Gaztetxoa gizondu zen etengabeko Aberri-lanean, Herriko Hizkuntza eta Historia ikasi zituen sakonetik, eta oraingo hogeitazortzi urterako honetaz idatzi ere egin zuen: *Bizkaya por su independencia*; idazlan hau dela eta ausartu zen lehen pausoa publikoki ematera.

Han esan zuen, ausarti, bildu zirenak beldurtuko zituen zerbait:

*"Neuk ez dut niretzat ezer nahi, dena Bizkaiarentzat nahi dut; oraintxe, eta ez behin bakarrik, ehun aldiz, emango nioke neure lepoa aihotzari, ordainez neure herria berpiztuko dela baneki".*

Eta bakarrik geratu zen.

Hirugarren ordua *heriotzarena* izan zen.

Bakardade hartatik (eta bere anai Koldo hurbil beti, ez dezagun hau inoiz ahaztu) ekin zion hamar urte luzeko lan gogorrari. Behar zuen alderdi politikoa sortu zuen: Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV) 1895ean; Euzkaldun Batzokija (1894-1895); Centro Vasco (1899); Sabinekin euskal argitaldaria ireki eta Espainiak itxi; honek espetxera sartu, eta hura irten. Azkeneko gartzelaldian arnasarik gabe geratu zen. Dirurik gabe, eta gorputza gaiso utzi hamar urteko borroka latz honek; gogo bizkor oraindik, baina honek esaten zion ez zegoela irtenbide errazik. Sabinekin berak neke eta gabezia hau dena beretzat hartu zuen, horretarako eskaini zen osorik; baina orain, gaisotasun ilun hura bere gorputzean aurrera zihoala senti zuanean etorri zitzaion bere gogora, gogo zorrotz

hartara, bere ekintzarekin zamatu zuen alderdikide talde ederra; eskrupuluz, noski; eta Espainiako legeak babes zezakeen alderdi berri bat sortzea bururatu zitzaion. Ezkutuko gauza bezala gorde nahi izan zuen, eguna heltzen zenean bere *konfidantza osoko abertzaleei* hitzegiteko asmoa hartu zuen. Nortzuk ziren horiek? Engracio Aranzadi eta Luis Eleizalde, *Gipuzkoatik*; Gotzon Zabala, Salustiano Zاراcondegi, Antonio Maguregi "eta beste batzu", *Bizkaitik*; Miguel Cortes Navarro eta Francisco Oyarzun, *Nafarroatik* eta Federico Belaustegigoitia "eta beste batzu", *Arabatik*.

Baina gaitza aurrera zihoan, eta 1903garrengo azaroak 25 zituela, goizeko seitan hil zen.

Hamairu egun lehenago, 12an, jaso zuen maisuaren bigarren egiten zuenak nekez idatzia zegoela nabari zen mezu hau:

*"Gotzon maitea: Oso ahuldua nago nire galtzak utzi dizkidan azken kemenetan. Barka agindutakoa ezin bete ahal izan badut. Goraintziak, JELpean zure Sabin".* Eta ohartxo bat beheraxio: *"Uste dut ihadanik ez dela lehen bezala beharrezko"*.

Honek uzten zuen bere jarraitzailea Alderdiarekin lehengoan jarraitzeko askatasunean, JELpean.

Eta halaxe egin du Euzko Alderdi Jeltzaleak geroztik.